

811/2024 EBAZPENA, maiatzaren 14koa, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Donostialdeko ESiko Kirurgia Orokorra eta Digestio Aparatuko Zerbitzu Sanitarioko burua hautatzeko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen osaera onartzen diren.

AURREKARIAK

Donostialdeko ESiko zuzendari gerentearen abenduaren 5eko 2406/2023 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Donostialdeko ESiko Kirurgia Orokorra eta Digestio Aparatuko Zerbitzu Sanitarioko burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa sistemaren bidez (2024ko urtarrilaren 15eko EHAA 11 zk. eta 2024ko urtarrilaren 24ko BOE 21 zk).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2024ko otsailaren 14an amaitu zen.

Donostialdeko ESiko zuzendari gerentearen otsailaren 23ko 223/2024 Ebazpenaren bidez, prozesuan onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu zen.

Aurrekoa ikusita, ebazpen honen bidez argitaratzen da onartutakoen eta bazter utzitakoen behin betiko zerrenda, eta Balorazio Batzordea izendatzen da.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Donostialdeko ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaaren webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Era berean, Balorazio Batzordearen izendapena argitara emateko aginduko du.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetza Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219 zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez.

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.— Donostialdeko ESiko Kirurgia Orokorra eta Digestio Aparatuko Zerbitzu Sanitarioko burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzea (I. Eranskina).

Bigarrena. — Balorazio Batzordearen osaera onartzea (II. eranskina).

Hirugarrena.— Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Laugarrena.— Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Zuzendari Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Donostian, 2024ko maiatzaren 14an.

Donostialdeko ESIko zuzendari gerentea
EB (2266/2022 Ebazpena, abenduaren 13koa)

Langileen zuzendaria
MARIA PILAR SÁNCHEZ GARDUÑO.

DONOSTIALDEA ESI
LANGILEEN ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN DE PERSONAS

II ERANSKINA

DONOSTIALDEKO ESIKO KIRURGIA OROKORRA ETA DIGESTIO APARATUKO ZERBITZU SANITARIOKO BURUA IZENENKO LANPOSTUA

BALORAZIO BATZORDEA

Batzordeburua:

Titularra: Sara Arévalo Lobera andrea (Donostialdeko ESIko zuzendari medikoa)

Ordezkoa: María Eugenia Alkiza Eizagirre andrea (Bidasoko ESIko zuzendari medikoa)

Lehenengo batzordekidea:

Titularra: Jon Alexander Sistiaga Suarez jauna (Donostialdeko ESIko zuzendariorde medikoa – Arlo Kirurgikoa)

Ordezkoa: José Javier Zubeldia Caminos jauna (Donostialdeko ESIko zuzendariorde medikoa – Arlo Medikoa)

Bigarren batzordekidea:

Titularra: María Begoña Estráviz Mateos andrea (Uribeko ESIko Kirurgia Orokorra eta Digestio Aparatuko zerbitziburua)

Ordezkoa: Aitor de la Quintana Basarrate jauna (Ezker-Enkart-Gurutzetako ESIko Kirurgia Orokorra eta Digestio Aparatuko zerbitziburua)

Hirugarren batzordekidea:

Titularra: Eugenia Campo Cimarras andrea (Arabako ESIko Kirurgia Orokorra eta Digestio Aparatuko zerbitziburua)

Ordezkoa: Fernando Pereira Pérez jauna (Hospital Universitario de Fuenlabradako Kirurgia Orokorra eta Digestio Aparatuko zerbitziburua)

Laugarren batzordekidea (IVAPek proposatuta):

Titularra: Enrique Pedro Cormenza Lizarribar jauna (Bidasoko ESIko Kirurgia Orokorra eta Digestio Aparatuko zerbitziburua)

Ordezkoa: Iñaki Urkidi Valmaña jauna (Debarrena ESIko Kirurgia Orokorra eta Digestio Aparatuko zerbitziburua)

Idazkaria:

Titularra: María Pilar Sánchez Garduño andrea (Donostialdeko ESIko Langileen zuzendaria)

Ordezkoa: María Estrella Garrido Manzano andrea (Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko Pertsonaleko zuzendaria).